

22/07/2009

'Arild Andersen Trio ' ren kontzertua igandean Chillida-Lekun, Donostiako Heineken Jazzaldiaren barruan

DONOSTIAN ekitaldi ugarik erakartzen dute inguruko eta urrutiko jendea, eta horietako bat da Donostiako Heineken Jazzaldia. Gaurtik igandera arte izango da, eta hiriburuko eta inguruko herrietako hainbat txoko musikaz beteko ditu; horien artean Hernaniko Chillida-Leku museoa.

' Arild Andersen Trio ' igandean

Jazza igandean iritsiko da Chillida-Lekura, eguerdiko 13:00etan, eta kontzertua Arild Andersen Trio talde haundiak emango du. Arild Andersen jazzaren aintzindaria da Eskandinavian. Baxujole boteretsua da, eta joan den urtean Frantziako Académie du Jazz-ek, Europako jazz musikari onena izendatu zuen. Kontzertuaren prezioa museora sartzeko ordaintzen den bera izango da; horrez gain, informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonoa jarri dute herritarren zerbitzura: 943 336 006.

Hirurogei kontzertutik gora

Aurtengo Jazzaldian hirurogeitik gora kontzertu entzun ahal izango dira, hamabi eszenatoki ezberdinetan banatuta: Victoria Eugenia Antzokia, Kursaal Auditorioa, Altxerri, Be Bop, Trinitate Plaza, Agertoki Berdea, Frigo Gunea, Heineken Karpa, Euskal Jai Pelotalekua, Union Artesana Elkarte, Zientziaren Kutxagunea eta Chillida Leku. Gainera, eszenatoki guzti hauetan, urteroko ohiturari jarraituz, jazzjole haundiak entzun ahal izango dira: aurtengo esanguratsuenen artean, ondorengoak ageri dira: Carla Bley, Hank Jones, Jazz Times, Joe Lovano, Open Mike eta Roy Haynes, besteak beste.

Roy Haynes Donostiako Jazzaldia 2009 saria

Jazzaldiaren barruan, urtero Donostiako Jazzaldia saria ematen dute, eta aurtengoa Roy Haynes baterijole beteranoarentzat izango da. Roy Haynesek 84 urte ditu, eta Heineken Jazzaldiko zuzendaria den Miguel Martinek adierazitakoaren arabera jazzaren protohistorian jotzen hasi zen jazzlari haundia da Haynes, garai guztietara egokitu dena. Haynesek ostiralean emango du kontzertua, aurreko berreskuraturako Trinitate Plazan, gaueko 21:00etan; sarrerak 30 euro balio du.

Zabaldu!